

# PIRATEN JANTZIAK

Piratak zikin samarrak baziren bai, baina ez pentsa edozer gauza jazten zutenik gero. Itsasontzi barruan erropa eroso erabiltzen zuten egin behar zituzten maniobra arriskutsuetan trabarik ez izateko. Baina lur hartzen zutenean dotore dotore jantzen ziren oso presumitoak bait ziren. Ahal zuten eta luxu gehienarekin jantzen ziren lurralde horretako pertsonak haserretu arazteko.

Guk ere antzera egiten dugu ezta? Etxean pijamarekin goxo goxo eta kalera irteteko elegante jantzi.



Honela jazten ziren piratak:

1. Kapela edo larruzko edo fieltrozko trikornioa eramaten zuten.



2. Itsasontzian botak eta lurrean ebilladun zapatak, ez bait ziren erosoak itsasontzian gora eta behera ibiltzeko.

3. Kamiseta fresko eta arinak. Batzuk marradunak edo eta pikodunak izaten ziren.



4. Armak izkutatzeko fajina eramaten zuten.



5. Eskumutur zabaleko txaketak.

6. Tela sendoko eta normalean belaurerainoko galtzak izanten zituzten.



Erropa altxor handia zen piratentzat. Itsasontzi bat erasotzen zuten bakoitzean, bertakoei arropa guztiak kentzen zizkieten.

**Hemen behean jantzi mordoak duzu. Aukeratu lur hartze zutenean erabiliko zituztenak.**

GALTZA LUZEAK	EBILLADUN ZAPATAK	KAMISETA MARRADUNA	ALKONDARA
JERTSEA	FAJINA	TXAPELA	TXALEKOA
EZKUMUTUR ZABALEKO TXAKETA	BOTAK	BELAUNERAINOKO GALTZAK	ZAPI DOTOREAK